

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafar Lansarek 300.000 €rekin finantzatuko ditu Nafarroako ETEek beraien langileentzat antolatutako prestakuntza-jarduerak

Helburua da langileen gaitasunak eta lan-espezializazioa hobetzea, eta enpresen lehiakortasuna handitzea

Osteguna, 2017.eko ekainak 29

Nafar Lansarek 300.000 euro bideratuko ditu Nafarroako ETEek beraien langileen gaitasunak eta prestakuntzak hobetzeko antolatutako prestakuntza-jarduerak finantzatzeko, eta baita beraien eguneratze eta espezializazio profesionalerako, edozein dela langileak zerbitzuak ematen dituen sektorea edo jardueradarra.



Nafar Lansarek 300.000 €rekin finantzatuko ditu Nafarroako ETEek beraien langileentzat antolatutako prestakuntza-jarduerak.

Jarduera horiek ezagutza berriak bereganatzen eta etengabe birziklatzen lagundu beharko dute. Bestalde, langileek gora egitea eta gizarteratzea eta enpresek lehiakortasun handiagoa izatea ere bada helburua. Deialdiaren oinarriak ekainaren 28ko [NAO](#)n argitaratu ziren, eta [eskaera](#) egiteko epea uztailaren 13an amaituko da.

Prestakuntza-jarduerak, gutxienez, 10 ordukoak izan beharko dute, eta zuzenean, online edo modu mistoan (zuzenean eta online) egin ahalko da. Taldeko, gehienez, 20 ikasle egon dira zuzeneko prestakuntzari dagokionez; 80 ikasle, online egiten bada.

Nafar Lansarek bultzatzen dituen enplegurako bestelako prestakuntza-deialdietan bezala, diru-laguntza moduluka egingo da, prestakuntza motaren arabera: zuzenean bada, moduluka egingo da, prestakuntza motaren arabera: zuzenean bada, parte-hartzaileko eta orduko modulua 6,54 euro dira, eta online bada, 4,9 euro. Enpresaren tamainak ere eragina izango du diru-laguntzaren ehunekoan: gehienez, moduluaren % 60 enpresa ertainetan, eta % 70 arte enpresa txikietan. Gehienez, 70 ordu lagun daitezke diruz prestakuntza-jarduerako.

Prestakuntza enpresak gara dezake, bere baliabideekin, edo kontratazioaz baliatuz. Ez dira diruz lagunduko informazio- edo dibulgazio-jarduerak, hala nola jardunaldiak, azokak, mintegiak, sinposiumak eta kongresuak, ez eta irakaskuntza arautua, doktoregoak, graduondokoak eta masterrak ere, edo enpresetako prestakuntza.

Nobedade gisa, enpresak eskatutako prestakuntza-jarduerak ez baditu egiten, % 40 arteko zehapena jaso dezake. Hori, enpresa aurkezten den etorkizuneko deialdien baremoan aplikatuko da.

2015. urtean laguntza horien ondorioz 4 enpresak sustatutako 8 prestakuntza-jarduera egin ziren, eta 66 ikaslek parte hartu zuten. 2016an 9 enpresak sustatutako 26 ikastaro izan ziren, eta 138 pertsonak parte hartu zuten.